

# MULTIMEDIA KOMUNIKAZIORAKO ESTRATEGIA LINGUISTIKOAK

## ZuZeu webgunearen azterketa

The screenshot displays the ZuZeu website interface. At the top left is the logo for 'zuzeu albistaria' with the tagline 'internetzaileen albistari horizontala'. To the right are search fields for 'Erabilzailea' and 'Pasahitza', and a 'SAIOA HASI' button. Below the search fields is a navigation menu with categories: Albisteak, Hitzordueak, Trepetak, Bideoak, Argazkiak, Zuzeuariak, and Nire Zuzeu. A search bar contains the text 'Adib: Somalia piratak' and a 'BILATU' button.

The main content area features a featured article titled 'Irish Timen editoriala Euskal Herriko egoeraz eta eman beharreko urratsez'. The article is dated 'Asteartea, 2011/01/04 @ 08:45' and is by 'A. Etxaniz'. The article image shows a woman in a white coat standing in a field. Below the article is a short summary: 'Editorial interesgarria argitaratu du gaur Irish Time egunkariak une honetako Euskal Herriko une honetako egoerari zuzendua. ETari bezala, Espainiako gobernuari ere zuzentzen zaio, Brian Currinen nabarmenki porrot egin duela adierazteaz batera. Jarraian duzue editoriala euskaratua'.

Below the article are social media sharing options: 'Segi irakurtzen...' and '2 iruzkin'. There are also tags for 'BAKEA', 'GATAZKA', 'IRISH TIME', and 'KOMUNIKABIDEAK', and a category 'PROZESU POLITIKOA'.

The sidebar on the right is titled 'Sarrera berriak' and lists several news items:

- KULTURA**: Bihar 'Zigortzaileak' filmaren estreinaldia ZuZeu.
- EUSKAL HERRIA**: Irish Timen editoriala Euskal Herriko egoeraz eta eman beharreko urratsez A. Etxaniz.
- EKOLOGIA**: Norik erre nahi ditu hondakinak (4) perusara.
- EUSKAL HERRIA**: Hilaren 18tik aurrera euskara erabili ahal izango da Espainiako Senatuan Txomin Lasarte Azkarate.
- KULTURA**: Borja Cobeaga 'No controls' filmarekin datorligu Gastezulo aldizkaria.
- ZEURE KASA**: ZuZeu: 2010eko audientzia datuak ZuZeu.
- KIROLA**: Bartzelonari, moltes gràcies Tolosaldeko Euskararen Semabroa.

Below the sidebar is a 'BERO-BERO' section with several news items:

- Sudan bitan zaitzeko erreferenduma bost egun barru Rue89 | ZuZeu.
- Nafarroan salaketa bakar bat ere ez tabakoaren lege berriaren harira Noticias de Navarra | I. Martinez.
- Tortura erlatibizatzea [Carlo Fabrettiren Iritzi artikulua] Insurgente | X. Irizar.
- Batasunak ETari erabatekoa bihurtuko den su-etena eskatzen dio El País | A. Etxaniz.
- Zapatero eta Urkulluren arteko akordio estrategikoa Gara | A. Etxaniz.
- 2010, EITBren Annus horribilis Dela | A. Osinalde.
- 'Miñao auziko' inputatu bat ez da agertu Legebiltzarreko batzordean Berria | X. Irizar.

At the bottom of the sidebar are links for 'Gehitu zurea' and 'Guztiak ikusi'.

Ander Perez Argote  
Multimedia Komunikazioa Masterra

## Sarrera

Zuzeu Xoraturikan Elkartea Mugatua (XEM) irabazi asmorik gabeko ekimenak 2009ko apirilan martxan jarritako interneterako proiektu komunikatiboa da. Bere sortzaileen arabera, "albistari digital horizontala" da Zuzeu, "Internetzale euskaldunok munduari begiratzeko lehioa". Izan ere, "zuzeulari" gisa izena eman ostea, edozein erabiltzaileek argitaratu dezake bere albistea ziberkomunikabide honetan, "blogen blog moduko bat" eratuz. Horiexek da, hain zuzen ere, Zuzeu proiektuaren ekarpen eta berrikuntza nagusia, interneteko euskal komunikazioan erreferente bat izatera eraman duena.

ZuZeuren albistari digitalari indarra ematen dion elementua, beraz, parte-hartzea da. Aipatu legez, izena emanda - *zuzeulari* eginda - argitaratu daitezke nahi beste informazio. *Gugeulari* izateko tresna ere eskaintze die ziberkomunikabideak talde, kolektibo edota bestelako elkartei. Horien erkarpenaz gain, ZuZeuk badu bere erredakzio talde propioa, eta horrek ere argitaratzen ditu lantzean behin albistea, ziberkomunikabiderako tresna berriak eta hobekuntzak bilatzeaz gain.

Euskal Herrian eta euskaraz eratzten den proiektua da ZuZeuren, baina, era berean, zuzeneko loturak ahalbidetzen ditu nazioarteko beste hedabide nagusi askorekin - The New York Times, Al Jazeera, El Pais, Times, kasu -, horien informazio garrantzitsuak gurera ekarriz.

Urtebete t´erdi luzetxo interneten egin duen proiektua izateko, kontuan hartzeko modukoa da dagoeneko lortu duen arrakasta. Ziberkomunikabideak orain gutxi kaleratu ditu 2010. urteari dagozkion audientzia datuak eta horien arabera, 387.603 izan dira iragan urtean zehar osotara jasotako bisitak, eta 147.530 izandako erabiltzaile desberdin absolutuak.

Baina, zerk bultzatu du horrelako arrakasta? Nola lotu euskarazko proiektu batera hainbeste jende, non eta gure egoera soziolinguistikoa duen herri honetan? Gaiak izan al dute zerikusirik? Edota gai horiek lantzeko formatuek? Akaso, parte-hartzerako aukerak eta komunitatea eratzeko indarrak ekarri du arrakasta? Txosten honen bitartez, Zuzeu ziberkomunikabidearen azterketaren bitartez, aipatu galdera hauei guztiei erantzuna emateko oinarri batzuk plazaratzen saiatuko gara.

## 1. Ikuspegi Soziolinguistikoa

ZuZeu euskaraz eraikitako proiektua da, batik bat, *zuzeulari* izateko eta hortaz, proiektuan albiste propioak argitaratu ahal izateko eskatzen den baldintzetako bat horixe delako, euskaraz publikatzearena. Hizkuntzak berebiziko garrantzia dauka proiektuan, eta honen bereizgarri nagusietako bat da. Izan ere, ZuZeu internetzale euskaldunon gabeziak betetzeko eta ingurura begiratzen ibili behar izan gabe gure lehio propioak sortzeko proiektu gisa eratu baitzen.

Hortaz, esan dezakegu euskararen aldeko hautua arrazoi irmo batzuek bultzatua dela, eta bi norabideetan ematen dela: Informazio eratzailen *-zuzeulari, gugeulari* eta erredakzio taldea-profil soziolinguistikoa euskalduna da eta hizkuntza dominatzen du. Era berean, eta euskarazko interneteko komunitatea indartu nahi duen proiektua izanda, profil bera duten erabiltzaileak daude jomugan. Edonola ere, aipatu beharra dago ZuZeu-ren gisako proiektuan dexente lausotzen direla igorle-hartzaile arteko mugak, finean hartzailea bera igorle bihurtu nahi delako -eta alderantziz-, parte-hartzerako elementuen bitartez.

Euskarazko komunitate hori indartzeko erabiltzen diren baliabideen artean gaien erakargarritasuna aipatu beharra dago. Erabiltzaileen argitalpen gehienek Euskal Herriko egoera politikoa, kulturgintza edota euskara bezalako gaiak dauzkate abiapuntu, zalantzarik gabe, euskal komunitateko partaideen intereseko gaiak. Edonola ere, gaiok ematen zaien trataerak hartu du indarra audientzia erakartzeko orduan. Izan ere gai horiek interneten topatutako bitxikerien bitartez, bideo interesgarrien bidez, inkesta ezberdinen emaitzak erabiliz edota munduko beste leku batzuetan horiei buruz publikatu dena gerturatuz eskaintzen zaio informazioa irakurleari, beste inon topatuko ez duen formatuan. Horrek etengabeko harreman bat sortzen du ZuZeu eta interneteko gainerako informazioen artean, azken hauek lehenengoaren informazioak janzteko erabiltzen baitira, irakurleari informazio osatu eta berri bat emanez.

Horregatik, eta euskarazko komunitatearen sendotzerako erabiltzen dituen erramintak erakargarri suertatzen direlako esan daiteke, kasu oso berezi batzuetan, ZuZeu proiektuaren erabiltzaile potentzial gisa koka daitezkeela erdal kontsumitzaileak, horiek, inondik inora, proiektuaren helburu ez badira ere. Horrelako kasu batek eztabaida sortu zuen ZuZeu-ko erabiltzaileen artean, Iñaki Perurenaren elkarrizketa batek 474.000tik gora bisita jaso

### **Non du euskarazko sareko komunitateak muga?**

Asteazkena, [2010/12/29](#) @ 07:45 Dot [ZuZeu](#)

Galdera horixe luzatu diogu geure buruari [Iñaki Perurena herri-jasotzailearen bideoak](#) gurean 474.000 bisita baino gehiago izan dituela begiratu dugunean. Ondo dakigu jakin bisita horien artean milaka asko gaztelaniazko erabiltzaileak izan direla, baina posible ote litzateke 500.000 bisita jasotzera heltzea euskara hutsezko post batekin?

Eta horixe nahiko genuke frogatu: zenbat erabiltzaile euskaldun dituen internetek. Hau da, erabiltze guztien interesekoa den eta sare sozialetan jendez jende hedatuko litzatekeen post batek izan ote litzake

Geure kezka ez da berria, Patxi Gaztelumendik [bere blogean galdetu](#) baitzuen zenbat den asko euskaraz. [Berria.info](#)k, irailean, dirudienez, Zinemaldiaren sasoian, zortzi egunetan 101.297 bisita izan zituen. Euskarazko hedabideetan erreferentzia nagusia denez, aintzat hartzekoa da kopuru hori.

Gaztelumendiren galdera gure eginez, asko da ala gutxi Berriaren zifra hori? Gehiago behar luke? Hitzun kopuruarekin proportzioan doa? Helduko litzateke edo helduko da euskarazko albiste bat 500.000 bisitetara?

zituenean. Ikus dezagun horren harira ZuZeun plazaratu zen artikulua.

Goiko artikulua ZuZeuk euskararen egoeraren inguruko hausnarketa eta eztabaida bultzatzeko egiten duen lanaren adibide da. Artikulu horretan, proiektuan eman den gertakizun batetik abiatuta euskarazko interneteko komunitatearen mugen inguruko eztabaida planteatzera iristen da. Era horretakoak aise aurki daitezke ZuZeun proiektuan, finean, bere helburua euskarazko komunitatea sendotzea den heinean euskararen inguruko gogoetak ezinbestekoak direlako.

Orokorrean, esan dezakegu, ZuZeuk euskal komunitatearen interesezko gaiak formatu eta ikuspegi berrietan landuz, multimedia irizpideak integratuz – bideoak askotxo dira – eta hizkuntzaren eta beste hainbat kontuen inguruko eztabaidak sustatuz lortu duela euskarazko normalizazioaren bidean pausuak ematea. Azkenean, irakurleari ikusarazi dio interneten badagoela entretenimendurako, informazio landurako eta eztabaida interesgarrietarako lekua erdarazko eta ingelesezko mundutik kanpo, eta hortaz, euskara bere eremuak irabaziz joan daitekela. Erraminta horiek ezinbestean ulertu behar ditugu euskal komunitatearen sendotzearen faktore nagusi gisa, eta hortaz, ezin ukatu ZuZeuk normalizazioaren alde egindako lana.

## 2. Ikuspegi funtzionala

*Zer da ZuZeu?* atalean proiektuak argi eta garbi esaten du euskaraz aritzeko eta euskal komunitateari zerbitzu bat emateko sortu dela. Horri "internetzale euskaldunok munduari begiratzeko leihoa" izan nahia gehituta argi ikus dezakegu erabiltzaileei eta publiko orokorrari zuzenean aitortzen eta komunikatzen diola bere nahia. Edonola ere, euskararen normalkuntzarako asmoak diskurtsiboki baino praktikoki helarazten dituela esango nuke. Izan ere, euskaraz eta euskararen inguruan pubiikatzen eta zabaltzen denak gure hizkuntzaren normalkuntzari mesede egiteaz gain, ZuZeuk horiek publikatze berak erabiltzaileei bere asmoak komunikatzeko era garbiena baita.

Era berean, webgune honek bultzatzen duen komunikazioa guztiz transakzionala dela esan beharra daukagu. Izan ere, erabiltzaileak beraiek dira proiektua eraiki eta edukiz betetzen dutena, eta horrela, erabiltzailegoa, euskarazko internetzaleon komunitatea orokorrean bihurtzen da bai ekoizle eta baita hartzaile ere. Partehartzea, beraz, funtsezko elementua da webgune honek praktikatzen duen komunikazio ereduan.

Edonola ere, komunikazio eredu hau ez litzake posible erabiltzaileen bisitarik gabe eta erabiltzaile hauen partehartzerik gabe. Jendeak edukirik sortu eta plazaratuko ez balu, besterik gabe, ez legoke ZuZeu tresnarik. Baina, nola sortzen da orduan horrelako dinamika aurrera eramango duen sarea? Nola erakartzen ditu ZuZeuk erabiltzaileak? Eta nola bultzatzen ditu horiek edukiak sortzera?

Egun komunitatearen ideia pisuzko elementua da interneteko proiektuen arrakasta. Pertsonen -interneten ere- elkar komunikatzeko, elkar informatzeko eta eztabaidatzeko duten beharrak eraman ditu nagusitasunera sare sozialak, besteak beste. Gurean, interneteko euskal erabiltzaileen komunitate txiki baino aktiboan, ZuZeuk proiektuak jakin izan du, beste ia edozein baino hobeto, komunitate hori irudikatzen, eta Interneteko ozeano erraldoian bere lekua ematen. ZuZeuk partehartze zuzenerako bitartekoa jarri du mahai gainean, eta internetzaleek eskertu eta erabili izan dute. Ez edonola gaitera. ZuZeuren helburu nagusia zuzenean barneratu izan balute bezala, erabiltzaileek (400dik gora dira *zuzeulariak*) euskal komunitate horren garapenari mesede handia egiten dioten edukiak sortzen asmatu izan dute, euskara, euskal kulturgintza eta egoera politikoari buruzko hausnarketa, esteka eta informazio aberatsak, interesgarriak, eta batez ere, eztabaidagarriak plazaratuz. Era berean, ZuZeuk eduki horien inguruan eztabaidatzeko bitartekoak luzatu ditu, eta hortik etorri dira eduki jakinen inguruan pilatu diren iruzkinak, eta hortik eratorritako eztabaida sakon eta mamitsuak.

Laburbilduz, beraz, esan dezakegu erabiltzaileei hitza emanez eta hauek era aberasgarrian hitz hau hartuz ZuZeu euskaraz pubiikatzen duen atari bat izatetik Euskal Herria eta euskara bera

ardatz dituen atari bat izatera pasa dela, euskal komunitateari horiei buruz eztabaidatu eta norabideak definitu ditzan aukea emanaz.

Horretarako, bereziki aipatu beharra daukagu multimedia propietateak atariari era egokian aplikatu izana. Internetek eta multimediatasunak eskaintzen dituzten tresnak erabiltzen jakin izan du, atarian bertan euskarri ezberdin eta asko plazaratuz – bideoak, argazkiak – eta sare sozialetan bere lekua eginez ( Twitterren 700 bat jarraitzaile ditu egun). Horien bitartez, euskarazko edukiak interneten zentzu batean normalizatu dituela esan dezakegu. Esan nahi dena da ZuZeuk nolabait lortu duela ikustaraztea egun interneten arrakasta duten edukiak – biralak, Youtubeko bideoak, adierazpen polemikoak, hausnarketa aberasgarriak, esteka kuriosoak – euskaraz sortu eta plazaratu daitezkeela, beste iturri batzuteara jo behar izan gabe.

Aipatu elementuek erakargarri bihurtu dute ZuZeuk proiektua, bai dibertimendurako eta baita informazio serio eta eztabaidarako. Herritarra protagonista bihurtu eta gainerako herritarren sorkuntzakin gozatu, hausnartu edota eztabaidatu ahal izatea da ZuZeuren lorpen handiena. Datuek, gainera, erakargarritasun hori berresten dute. Esan bezala, 147.530 erabiltzaile ezberdin izan ziteun ZuZeuk 2010ean zehar. Ez al da asko euskazkoa bezalako komunitate txiki baterako? Horri erantzuteko, egun euskaraz nabigatzen dutenen kopurua jakin beharko genuke, baina hori beste eztabaida bat da, hain zuzen ere, ZuZeuk berak plazaratu zuen [eztabaida](#).

### 3. Testu dimentsioa

Ziberkomunikabideen balizko arrakasta hartzaileengan sor dezaketen erakargarritasunaren eta baliogarritasunaren menpe daude. Bide horretatik, ziberkomunikabideak bestelako faktoreak erabili behar ditu, idatzizko prentsa osagarritu dezan, honen egokitzapen hutsa izatetik haratago. Zentzu horretan, eta hartzailearen erakargarritasuna bilatu nahian, ziberkomunikabide edozeinek beharrezkoa dauka proiektuaren bisualtasuna indartuko duten euskarri multimedien erabilera.

Hain zuzen ere, ZuZeu erakargarri egiten duten faktore nagusien artean daukagu bisualtasuna. Atariari begirada bat ematea aski da ezaugarri honetaz jabetzeko. Edukiak publikatzeko orduan, gainera, baldintzetako bat eduki horri argazki bat txertatzearena da. Zentzu horretan, proiektuan argitaratuta dauden sarrera guztiak elementu bisual indartsua den argazki batekin aurkezten zaizkigu. Horrekin batera, edukiaren laburpen edo sarreratxo gisa funtzionatzen duen testu txiki bat aurki dezakegu, sekula ez sobera luzea. Bi elementuen uztarketak erakargarritasuna eta interesa sortzeko gaitasuna dauka, irudirik gabeko testu luze batek eragingo lukeen sentsaziotik oso urrun.

Testuak, edonola ere, ezinbesteko garrantzia dauka ZuZeu proiektuaren arrakastan. Testuan jasotzen dira hausnarketak eta iritziak, testuak ekartzen du gurera beste nonbaiten – atzerrian – esandakoa, testuak, finean, ahalbidetzen du ZuZeun hain garrantzitsua den eztabaida. Testua egotea ezinbestekoa da beraz, baina garrantzitsua da, ZuZeuk egiten duen moduan, testu horri sarrera arina ematea, argazki eta sarrera laburrekin, nahi duenak klikatu eta edukian sakondu dezan, eta nahi ez duenak aspergura eta desatsegintasuna sentitu ez dezan.

Testu horietan erabiltzen den hizkera, orokorrean, argia, erraza eta arina izan ohi da. Egia da ZuZeun edukiak publikatzen dituen edozein izan daiteken heinean erabiltzaileen profil soziolinguistikoa eta hortaz, erabiliko dituzten hizkuntza baliabideak anitzak izan daitezkeela. Edonola ere, badirudi erabiltzaile guztiek ulertu dutela ZuZeu proiektuaren jomugan euskarazko komunitate orokorra dagoela, eta zentzu horretan, euskara batua, argia eta ulerterraza da nagusi. Hori ezinbesteko faktorea da erabiltzaile orokorrak erakarri eta partehartzera bultzatzeko orduan.

Parte hartzea eta *kazetaritza herritarra* gisa ezagutzen den faktorea ZuZeu proiektuaren ardatz nagusi diren heinean, ulertzekoa da webgunean topa dezakegun testu moten aniztasuna. Zentzu horretan albisteek, deialdiek, iritziek, analisi politikoek, kronikek, prentsan aurkitutako edukiek eta bestelakoek osatzen dute atariaren errepertorioa. Hipertestuaren eta hipermediaren erabileraren bitartez, gainera, horiek lotzeko eta edukiak bata bestearekin osagarritzeko aukera dago. Zentzu horretan, publikatutako hausnarketa batetik erraz pasa

gaitezke horren inguruan egindako bideo bat ikustera edota informazio beretsua landu duen egunkari baten edukia irakurtzera.

ZuZeuk euskararen *corpusari* egindako ekarpena edukitik edota testu motatik baino genio dauka euskarritik. Orain arte kalean, foro fisikotan edota prentsa idatziaren bitartez garatzen ziren hausnarketak eta iritziak sarera eramanez eta egungo komunikazio ereduetan leku eginez egin dio webguneak ekarpena euskaren normalkuntzari, eta zentzu horretan kokatu beharra daukagu proiektuaren garrantzia eta baliogarritasuna.

#### **4. Estiloa**

Behin eta berriz aipatu dugun eta ZuZeun ezinbestekoa den partehartzearen kontzeptuak eragin zuzena dauka hizkuntza eredu eta baliabideen aniztasunean. Hitz gutxitan, hizkuntza irizpideak proiektuan inolako sistematizaziorik ez dutela esan dezakegu, finean, idazten dena ez dagoelako botere jakin baten esku, publikatzen duten 400dik gora erabiltzaileen esku baizik.

Erabiltzaile horiek eta edukien gaiak baldintzatuko dute batik bat testu bakoitzeko hizkuntza irizpideak. Zentzu horretan, hausnarketa sakonek eskatzen duten erregistro formaletik arintasunez eta informaltasunez landutako gai kuriosoetara pasa gaitzke. Euskara da proiektuko edukiak batzen dituen, euskara batua batik bat, eta erregistro ezberdinen nahastea arazo baino partehartze zuzenak sortzen duen ondorio aberasgarri gisa ulertu beharra daukagu.

Erregistro aniztasunetik haratago, milaka erabiltzaile komunikatzen eta harremanetan jartzen dituen proiektua euskara hutsez garatzea da benetan garrantzitsuena hizkuntza irizpideei dagokionez. Euskara interneteko mailara altxatu izana da gakoa, eta batik bat, euskara interneteko hizkuntzara egokitzen jakin izana, testu luzeegien presentziarik gabe eta informazioaren gakoak azpimarratuz.

## 5. Ondorio orokorrak

ZuZeuk interneten euskaraz egin daitekela erakutsi digu. Hain zuzen ere, interneteko aukeretz gozatzeko, informazioak bilatzeko, eztabaidak garatzeko, multimediatasunen aukerak probesteko beste aldeetara, hizkuntza menperatzaileetara begiratu beharrik ez dugula ikustarazi digu. Azkeneko urteetan interneten euskara garatu duten proiektuen artean dugu ZuZeuk. Parte hartze zuzenerako tresnak ezin hobe baliatuz, euskara internetera egokitu duten *blogger* euskaldun, ziberkomunikabideetako kazetari edota bestelako erabiltzaileen edukiak integratzen eta horiei txoko bat egiten jakin izan du. Euskal komunitateari bere plaza eman dio, eta plaza hori bera erreminta ere bilakatu du, komunitate horren garapena ahalbidetuko duten eztabaidei aukera emanez.

Interneteko erabilera demokratizatzeko eta komunitatea indartzeko lana ezin uler daiteke egungo komunikazio ereduak ongi ulertuta horietara egokitzeko ZuZeuk egindako ahaleginak gabe, multimediatasun eta hipertestualitate elementuen erabilera bitartez erabiltzaileentzako proiektu erakargarria eraikiz.

Horren adibideak bagenituen interneten, baina ez euskaraz. Zentzu horretan da garrantzitsua ZuZeuk proiektuaren ekarpena, beste hizkuntzetan garatzen hasiak ginen internete erabiltzeko ereduak -youtubeko kontsumoa, bideo biralen zurrumbiloa, foroetako eztabaidak, intereseko loturetara jotzea- euskarara eramane dituelako. Era horretan, etorkizunean izan dezaken edo izan ez dezaken garapenan sartu gabe, komeni da gaur bertan aitortzea ZuZeuk proiektuaren ekarpena, kanal berri bat irekiz etorkizunean interneteko euskarazko erabilera garatzeko lehenbiziko harria jarri baitu.